

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA (EM)

1. AURRETIKO GOMENDIOAK: Ez da prestakuntza berezirik egin behar. Ez da beharrezkoa baraurik etortzea, ezta normalean hartzen duzun medikaziorik bertan behera uztea ere. Prozedura hasi aurretik komunera joatea gomendatzen da, Irudi bidezko Diagnostikoaren eremuan ez baitago komunik.

2. IRITSIERA ERA ERREGISTROA: Joan zaitez adierazitako itxarongelara, eta erradiologiako teknikari batek hartuko zaitu. Hark lagunduko dizu galdera-sorta errebasatzen edo berrikusten, eta zalantzak argituko dizkizu.

3. PRESTAKUNTZA FISIKOA: Segurtasun- eta higie-ne-arrazoiak direla eta, metalezko gauza guztiak kendu beharko dituzu, eta arroparen orde-z mantal bat eta oinetako babesak jantzi.

4. PROZESUA: Ekipoaren mahaian jarriko zaituzte; EMa aparatu irekia eta aireztatua da, eta barneko tenperatura kontrolatuta egoten da. Aztertu beharreko eremuak mahaiaren erdian geratu behar du. Hori dela eta, paziente batzuk burua aurretik dutela sartzen dira, eta beste batzuk oinak aurretik dituztela. Irudiak hartzeko, garrantzitsua da lasai eta geldirik egotea. Entzungailuak emango dizkizute, musika jarrita, zarata gutxiago sumatzeko eta teknikariarekin komunikatzeko.

5. SEGURTASUNA: Teknikariak azterketa programatuko du, eta aretotik kanpo egongo da. Leiho batetik ikusiko zaitu, baita ekipoaren atzean dagoen kamera baten bidez ere. Txirrin bat eskura izango duzu, behar izanez gero teknikariari abisatzeko. Teknikariak bere lanpostutik ikusiko zaitu, eta handik hitz egin ahal izango dizu.

6. IRAUPENA: Zenbait sekuentzia ditu prozedurak, eta 20-30 minutu irauten du. Zarata batzuk entzungo dituzu; normalak dira, makinaren funtzionamendu normalak sortzen ditu.

7. AMAIERA: Ekipotik aterako zaituzte, eta jantzi egingo zara; berehala ekin ahal izango diozu ohiko jarduerari.

8. EMAITZAK: Erradiodiagnostikoko aditu batek aztertuko ditu irudiak, eta txosten bat egingo du proba eskatu dizun medikuarentzat. Medikuek emaitza bere testuinguru kliniko zehatzean baloratuko du. Zure medikua Mutualiakoa bada, zuzenean ikusi ahal izango ditu irudiak eta txostena historia kliniko elektronikoan. Mutualiakoa ez bada, esteka bat izango du, kode batekin, irudietara eta txostenera sartzeko.

